



Txostena.

Egonaldiak: eredu azterketa. 2017

2017ko uztaila.



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Egonaldiak: eredu azterketa.

Aurkibidea.

Aurkezpena _3

I Ezaugarriak _5

1. Definizioa eta helburuak _5

1.1 Kontzeptu irekia _5

1.2 Begirada bikoitza _6

2. Finantzazio-motak eta -formulak _8

2.1 Egonaldi-motak _8

2.2 Finantzaketa-formulak _10

3. Elkarguneak: sareak eta harremanak _11

3.1 Hormak eraitsi _11

3.2 Sareak josten _11

4. Egonaldien onurak _13

5. Hautaketa-baldintzak _14

6. Ikusgarritasuna eta komunikazioa _17

7. Ondorio gisa _18

II Eranskina: Erreferentziazko egonaldiak eta jardunbide egokien deskribapena _19

Erreferentziazko egonaldiak _20

Sareak eta mapak _22

Bilatzailea _26

Proiektu bereziak _27

—

Aurkezpena.

Egonaldi-ereduen azterketa txostena dugu honako hau. Horrelako ekimenek izaten dituzten alderdi deskriptiboak identifikatu nahi ditu, eta bide-argi batzuk mahai gainean jarri, politika publikoak norantz eraman jakiteko. Lan hau EAEn sustatzen ari diren esperientzien mapa ikerketa zabalagoaren zatia da. Besteak beste nazioarteko bi txosten hauetan begiratuta egin dugu: IFACCAREN 2013ko > *International Perspectives on Artist Residencies*, eta *Policy Handbook on Artists' Residencies*, Europako Adituen Lantaldeak egina, 2014an, Europako Batzorderako.

Artisten egonaldietan, bolada batez beste testuinguru batean murgilduta ibiltzen dira artistak, egunerokoa ez duten beste inguru batean. Haien ibilbide artistikoaren elementu garrantzitsu ari dira bihurtzen. Programa horietako asko ezinbestekoak dira nazioarteko mugikortasuna errazteko, tokikoa eta globala lotzeko, sorkuntza garaikideak berezkoa duen moduan. Azken batean, zubi-lan moduko bat egiten dute sortzaileen, lurraldeen eta kulturen artean, eta oinarritzko tresna ere badira elkar trukerako eta lankidetzarako.

XX. mende hasieratik datoz, baina 60ko hamarkadatik aurrera hasi ziren mendebaldean zabaltzen. Orduko ereduak bi oinarri zituzten: artista isolatua, gizarte burgesetik erretiraturik zegoen hura; eta publikoarekiko elkarreragina, gizartearen eta politikaren aldaketa-eragile gisa. Mundu osoan zehar, berriz, 90eko hamarkadatik aurrera zabalduta ziren, aniztasuna sustatzeko formula modura eta tokiko eszena eta eszena globala konektatzeko bide modura.

Baina jauzia, benetako jauzia, mende berriaren etorrerarekin batera egin zuten. Lehenengo hamarkadan hasi ziren egonaldidun arte-zentroak antolatzen, bai nazio barruko bai nazio arteko sareak josten, erakundeen programek indarra hartu zuten, baldintzak gogortu, eta kalitate-maila zorroztu. Aldi berean, beste egonaldi-eredu batzuk ere sortu ziren, irekiagoak, lankidetzazaleagoak eta diziplina artekoak. Denboraldi baterako artista-trukaketak egiteko ereduak ere atera ziren.

Gure hamarkada honetan, berriz, bidaiak merkeagoak dira, komunikazio digitalak bizkorragoak, interesa handiagoa, eta, bateko eta besteko, egonaldiak oso azkar ari dira zabaltzen. Gaur egun, gainera -eta azpimarratzekoa da hau-, edukiarekin lotuagoak dira egonaldi-programa. Bada bilakaera bat, prozesuetan eta "nolakoan" oinarritutako eruedetatik, non sortzaileak baitzeraman edukia egoitzara, "zera" jartzera arreta-gune. Bai anfitrioiak bai artistek berek ere denen intereserako gaien inguruan dihardute, esparru artistiko hutsa gaindituta. Ikerketa-egonaldiak ugariagoak dira eta uste da -geroz eta indar handiagoz- egonaldiko artistak gizartearen baitan ezagutza garatzeko eredu berriak ekar ditzakeela.



Marta Graciak dioenez -hark ikertu baitu Espainiar estatuko kasua-, gaur egun jardunean diren artista-egoitzetako asko laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarrekoren erdi aldera sortu ziren. Bitarte horretan, bi programa-mota nagusi ezarri ziren: batzuk nekazari-inguruetan ezarri ziren, Europan eta Ameriketako XX. mende hasieran erabili ziren eredu tankera berean. Artista-koloniek bultzatzen dituzte edo artista aberatsen babespean daude garaturik, Espainian bizi diren ipar europarrek asmatuak, nazioarteko artistak hartzerantz zuzendurik daude. Bigarren motakoak hirietan garatzen dira eta tokian tokiko artistentzat izango dira nagusiki. Gehienetan, espazio batzuk izaten dira, artistek batera darabiltzatenak denboraldi batean, horixe dute oinarria, eta artea ekoizteko zentro baten parte izaten dira (adibidez: Arteleku, Bilbaoarte, Hangar). Kasu horietan, kanpoko beste zentro edo espazio batzuekiko trukaketa-programak erabiltzen dira nazioarteko dimentsioa sustatzeko.

Programa berriak diziplina arteko espazio profesional modura sortzen dira. Artistek prozesu berriak garatzeko eta esperimentatzeko aukera izaten dute, emaitzak betiko moduko erakusleku batean agerian jarri beharrik gabe, estutasun hori gabe. Hartara, erakusketa-zirkuitu alternatiboen sustatzaile bihurtu dira, arte-erakunde tradizionaletatik kanpora.

I_ Ezaugarriak.

1. Definizioa eta helburuak.

1.1 Kontzeptu irekia.

Egonaldi-kontzeptua irekia eta likidua da. Lehen hurbilketa batean, aukera bat dela esan daiteke, erakunde anfitrioi batek sortzaile gonbidatu bati eskaintzen diona, inguru berri batean lan egiteko, egunerokotasunaren mugarik eta presiorik gabe. Artistek eta bestelako profesional sortzaileek lan egiteko denbora, espazioa eta baliabideak aurkitzen dituzte, beren praktika artistikoari loturiko eremuetan jarduteko, banaka edo taldean. Murgilketa bat da, lanean sakontzeko aukera.¹

Egonaldiak ostaturia, aholkularitza juridikoa, ekoizpenerako laguntza eta erakusketak egiteko aukerak eskaintzen ditu. Gero eta gehiago, egonaldiak tematiko bihurtu dira. Batzuetan, egonaldiko artistak diziplina eta sektore ezberdinetako beste artista, zientzialari eta profesional batzuekin jarduten dira; eta, bestetuetan, lan espezifikoak egiten dituzte komunitate jakin baten barruan. Eskatu dezakete, edo ez, ukitzeko edo ikusteko moduko emaitza bat, esaterako: arte-ekoizpen bat, erakusketa bat, proiektu bat, tailer bat, lankidetzat bat. Maiz, lehiaketa moduko baten bidez aukeratzen dira artistak.

Egonaldiaren iraupena ez da beti bat izaten: lehen, 6-12 hilabeteko egonaldiak izaten ziren ohikoena, baina 3 hilabete baino laburragoko egonaldiak egiteko joera dago orain. Arrazoiak ekonomikoak dira, eta, nazioarteko egonaldietan, baita praktikoak ere, aldi baterako bisatuek EBn duten iraupena dela-eta. Askoz egonaldi laburragorik ere bada, hilabetekoa, astebetekoa edo baita egun bateko *pop-up-ak* ere.

Tamaina ere askotarikoa izaten da: badira “egonaldi nanoak”, hau da, sortzaile batek beste bat gonbidatzeko du lan egitera; eta badira “egonaldi itzelak” ere, non urtean ehun sortzaile inguru bizi den elkarrekin.

¹ Policy Handbook on Artists' Residencies (2014)

Egonaldietan, artistek “kanpoko lana” egiteko eta testuinguru jakin batean esku hartzeko aukera izaten dute, tokian tokiko sortzaile eta eragileekin sarri, hartara, ikuspuntu berriak mapeatzeko, biltzeko, ikertzeko eta sortzeko. Ikerketa integratu horiek kontzientziatze publiko eta profesionala handitzen laguntzen dute. Egonaldiak eremu akademikoaren ordezkotzat ezagutzeko ez ote direneko ideia indartzen dute. Edonola ere, ez dira gauza bera egonaldiak eta ikerketan oinarritutako praktika artistiko garaiak, bereiztea komeni da. Artistak, gaur egun, bakoitzak bere prozesua diseinatzen du, ikerketak egiten dituzte, eta litekeena da egonaldi baten antza izatea. Horrelako prozesuetan artistak ez dituzte dagoneko existitzen diren egiturak oinarritzat hartzen. Beste era bateko laguntasun-egitura batzuk sortzeko tartea izan liteke hor, epe luzearako ikerketa-proiektuak bideratzeko, baina egonaldiez aparteak.


1.2 Begirada bikoitza.

Artista-egonaldiak garrantzitsuak dira kultura- eta arte-trukea errazten dutelako, esperimentazioa eta ideia berriak sustatzen dituztelako, eta ikerketak egiten eta lan berriak garatzen laguntzen dutelako.

Erakunde anfitrioren begietatik ikusita, askotarikoak dira egonaldiak sustatzeko edo zabaltzeko arrazoiak:

- > Beste artista batzuekin harremanak lantzeko eta beste edo erakunde edo instituzio batzuekin aukerak trukatzeko.
- > Inguruko sormen-sarea garatzeko, ideiak eta lan-modu berriak trukatzeko.
- > Kanpotik datozen artisten eta bertako erkidegoaren artean sareak josteko.
- > Praktika artistiko jakin bat sustatzeko, esperimentazioa edo elkar trukea sustatzeko.
- > Sormen-sarearen etapa jakin batzuk indartzen laguntzeko: hasi profesionaltzeari laguntza emateko, sonako karrerari sostengua emateraino.
- > Sortzaileen eskura instalazioak eta baliabide espezializatuak jartzeko.
- > Beste prozesu batzuen hazia erateko, bete-betean sormen-arlokoak ez diren beste inguru batzuetako praktika artistikoetan oinarrituta (hezkuntzan, gizartean, industrian...).

Sortzaileen begietatik ikusita, egonaldiek geroz eta garrantzi handiagoa ari dira hartzen artisten karrera garatzeko. Arrazoi bat da artista lanarekin batera beste lan batzuek ere egiten dituela, bizimodua ateratzeko. Eta egonaldiek beste zeregin horietatik pixka bat urrutiratzeko beta ematen die, buru-belarri sormen-lanean aritzeko leku bat.



Artistei galdetuz gero zergatik hartzen duten parte egonaldi baten, erantzunetan hainbat alderdi nabarituriko ditugu:

> Prestakuntza:

- Teknikak ikasteko edo trebezia jakin batzuk eskuratzeko.
- Artista, komisario edo aditu jakin batzuekin lan egiteko.
- Erakunde jakin batean ikerlanak egiteko.

> Ekoizpena:

- Banakako (edo taldeko) sormen-proiektu baten lan egiteko.
- Tresna edo instalazio tekniko jakin batzuekin lan egiteko.
- Erakusketak egiteko.

> Inspirazioa eta sorkuntza.

- Egunerokotasunetik urrun denbora hartzea.
- Inguru eta kultura berri baten murgiltzea.
- Ideia bat sormen-senez esploratzea.

> Lankidetzak.

- Sareak jostea.
- Tokian tokiko artistak edo egonaldietan diren beste artista batzuk ezagutzea.
- Talde gisa lan egitea proiektu bat garatzeko.

2. Finantzazio-motak eta -formulak.

2.1 Egonaldi-motak.

Kontzeptu irekia izanik egonaldiarena, ez da erraza taxonomia egiten saiatzea. Edonola ere, badira sailkapen bat egiteko irizpide batzuk, irizpideok bata bestearekin konbina daitezkeela ahaztu gabe.

ESPEZIALIZAZIOA.		
Espezializatuak.		Zeharkakoak.
IRAUPENA.		
Egonkorra (lekua eta bitartekoak).		Denbora laburrekoa (proiektua).
ERAKUNDE ANFITRIOIA.		
Egonaldi <i>soilak</i> .	Erakunde artistikoak eta jaialdiak.	Artistek zuzendutako zentroak.
HELBURUA.		
Ikerkuntza.	Gaia.	Ekoizpena. Nazioartekotzea.

> Espezializazioaren arabera.

Bertan diren artistak baliteke modu edo praktika jakin baten aritzea, baliabide ugari erabiltzea, edo arte diziplina eta arlo ezberdinetan jardutea. Izan ere, kulturaren arloan, hasiera baten estu-estu ikusizko arteen inguruan aritzen baziren ere, arian-arian beste arlo batzuk jorratzeari ekin diote, hala nola arte eszenikoak, musika, idazketa, itzulpengintza eta ikus-entzunezkoak. Era berean, egonaldietako bai artistek bai anfitrioiek geroz eta joera handiagoa dute artegintzatik kanpoko beste arlo batzuetako lankideekin aritzeko aukerarik ba ote den aztertzeke.

> Iraupenaren arabera.

Formula guztiek badute iraupen jakin bat, baina badira egonaldi batzuk egonkorak, hau da, sormenari bide emateko leku bat eskaintzen dutenak (espazioa eta baliabideak), eta badira labur-laburrak ere. Lehenengoetan, artistak denbora luzean egoten dira, nahiz eta badiren muga batzuk, jakina. Halakoak izaten dira, sarri, antzokietan edo sormen-zentroetan egonaldietan diren arte eszenikoetako konpainiak. Horrelako egoitzen helburua etorkizuneko ekoizpenen batekin izaten da lotuago, eta, hartan, artistak erakundearen instalazioak erabili ahal izango ditu, edota maila artistikoan lagundu.

Beste batzuetan, iraupen mugatuko proiektu bat garatzeko erabiltzen dira baliabideak (gehienetan, laburra). Lan-dinamika horrek berezkoa du zentrorra edo erakundera doazen sortzaileak txandakatzea eta berritzea.

> Anfitrioniaren arabera.

Erakunde edo eragile sustatzaileen ezaugarrien arabera, egonaldien atzean, egon daiteke:

Egonaldiak *stricto sensu*. Jarduera nagusia horixe du, egonaldia; eta artista eta lan artistikoaren garapena ditu erdigunean. Izen handiko erakundeak dira, arte-munduan ondo kokatuak. Programa publikoa eskaintzen dute, egonaldietan oinarrituta (erakusketak, ate irekiak, bilerak). Topaketa artistikorako, sormen-topaketarako eta elkar trukerako zentroak dira. Baliteke komisarioak, programatzaileak eta bildumagileak joatea egoiliarrek ikustera, erakundearen ospeak erakarrita edo antolatzaileak gonbidatuta.

Erakunde artistikoak eta jaialdiak. Arte garaikideko zentro edo erakunde baten izaten dira, edo itzal eta sona handiko jaialdi baten barruan. Aldeko ditu inguru artistiko bizia, kudeaketa profesionala, sustapena, eta publiko interesduna. Askotan, beren lana beste profesional batzuekin edo publikoarekin erkatze aukera izaten dute.

Artistek zuzendutako zentroak. Artean dabiltzan profesionalak sortuak, sortzaileen lehentasunen arabera dira, eta hala jarduten dute. Izan daitezke artistek zuzentzen dituzten erakunde txiki batzuk, edo herriko artegintzarako funtsezko kate-begiak diren erakundeak. Hain dira sortzaileen eta bertako langileen izaerarekin eta lehentasunekin lotuak, askotan oso profil argia izaten dutela, artegintzaren arlo jakin batean edo sare zehatz baten dutela ardatza.

> Helburuaren arabera.

Praktikan -hau ere kontuan hartu beharra dago-, egonaldi-programek helburu bat baino gehiago izan dezakete. Ikus dezagun zertan jartzen duten arreta batez ere:

Ikerkuntza. Ikerketa-prozesua egonaldi-esperientzia sortzeko erabiltzen dute artistek, eta, batzuetan, konponbideak eta beste ikuspuntu batzuk ere erdiesten dituzte ikerketa horretan topatutako arazoetarako. Ikerketan oinarritutako eta gaika oinarritutako egoitzen artean dagoen aldea, artistak lan egiten duten inguruarekiko duen hurbiltasunean datza.

Gaia. Era guztietako ikuspuntuak jorratzen dituzte, baina egonaldien xedea prozesu artistikoa baino haratago dago, eta horrexek batzen ditu. Gai baten inguruan lan egiteko eskaintza egiten zaie.

Ekoi-zpena. Ideia edo proiektu bat garatzea eta praktikan gauzatzea da helburu nagusia. Erakundeak azpiegitura eskaintzen du, materiala eta/edo *know-how*-a. Prozesua bera amaierako lanaren zati da. Egonaldi espezializatu eta asko talde honetakoak dira.

Nazioartekotzea/Elkartrukea. Beste lurralde batzuetako artista eta zentroekiko kontaktua sustatzen da, erakunde anfitrioiaren arteko loturak ugartuz. Sortzaileen ikuspuntutik, beste testuinguru batzuk sakonago ezagutzeko eta beren sormen-erperientzia aberasteko aukera izaten da.

2.2 Finantzaketa-formulak.

Iraupenaren eta tipologiaren arabera, programen diru kostua ez da beti bera izaten. Ez da gauza bera ikus-entzunezko proiektu bat garatzeko programa bat, edo idazleentzako egonaldi bat; ezta, halaber, astebeteko egonaldi bat, edo nazioarteko programa bat ere.

Egonaldi-programak finantzatzeko bitarteko nagusia funts publikoak dira. Baina ari dira agertzen beste eredu berri misto eta hibrido batzuk, eta, haietan, hirugarren sektoreak eta merkataritza-arlo pribatuak geroz eta pisu handiagoa dute. Adibidez, Res Artis sarean dauden programetan, galdesortari erantzun dioten 134 artistetatik, 73k funts publikoak besterik ez zituzten jaso, 34k funts publikoak eta pribatuak, eta 22k, berriz, funts publikoak eta beraiek sortuak.

Eredu mistoen artean, nabarmentzekoak dira ostatu ematek lortutako dirusarreretan oinarritzen direnak. Beste batzuetan -beste eredu berriztatzaile bat jartzearen-, artisten arteko sareak proposatzen dira, logela edo apartamendu trukean oinarrituz.

Sortzaile gonbidatuei laguntzeko formulak ere askotarikoak dira: programa batzuek ez dute bat ere laguntzarik ematen sortzaileentzat, eta beste batzuek egunero-egunero ematen dituzte. Batzuek gauza batzuetan laguntzen dute (egonaldia, bidaia, proiektua), eta beste batzuek laguntza osoa ematen dute. Programa batzuetan soldata ere izaten dute artistek, egonaldiari laguntza emateko beste jarduerak batzuekin loturik askotan: ikastaroak, hitzaldiak eta abarrak.

3. Elkarguneak: sareak eta harremanak.

Elkartrukea eta irekita egotea da egonaldi-programen oinarria. Geroz eta sarriago, irekita izate horrek lankidetzaren handiagotzea eta dibertsifikatzea esan nahi du, programara eragile gehiago bilduz eta, ondorioz, egonaldi-eredu gehiago sortuz.

3.1 Hormak eraitsi.

Aipa ditzagun joera horretara garamatzaten arrazoi batzuk: aldaketa batzuk praktika artistikoei berezkoak dituzte, bai partizipazio eta lankidetzaren oinarritzen diren lan-prozesuetan bai diziplinartekotasunerako duten berezko joeran; proiektuek duten finantzazio-premiak bazkide gehiago biltzea dakar; teknologia berriek beste aukera batzuk ematen dituzte komunikaziorako eta sareak josteko; beste diziplina batzuekiko bateragarritasuna (diziplina zientifikoak, teknologikoak...); kulturak gizartean duen eragin positiboaz jabetzea; eta zenbateraino areagotu dezakeen lurraldearen kultura eta sormen erakarmena.

Kontua sareak jostea eta elkarguneak bideratzea bada, garbi dago bitartekaritzak zeresan handia duela. Eredu konplexuek berekin dakarte funtzio gehiago bete behar izatea koordinaziorako eta prozesuak dimentsio guztietan zaintzeko: artistikoan, harremanetan, ekoizpenean, hezkuntzan, komunikazioan... Programa arrakastatsuek bitartekaritza-talde indartsuak izaten dituzte.

Bazkide edo interesa dutenek hainbat eratarik lagun dezakete: baliabideak, ezagutza eta abar emanez. Edonola ere, engaiamenduak irabazpideren bat ekarri beharra du beti. Artistek berek ere -aipatzekoa da hau- lehen baino inplikazio handiagoa izaten dute egonaldiaren kudeaketan. Ari dira, era berean, artegintzatik edo kulturgintzatik ez datozen kanpoko beste bazkide batzuk ere egonaldietara biltzen; besteak beste, aipagarrienak, kulturgintzan aritzen ez diren arlo publiko edo pribatuak (ingurumena, zientzia, teknologia, turismoa...); kultur arlokoak ez diren erakunde publikoak (hezkuntza, osasuna, lurralde-garapena...).

3.2 Sareak josten.

Sarean lan eginez hainbat begirada elkartu daiteke. Oinarria garbi dago: elkarrekikotasuna, konfidantza, praktikarik onenak ikastea, lehentasunezko lotura-guneak erabiliz elkar hartzea, eta nodo elkarreragileak dituen diseinu deszentralizatua. Sarea kontzeptu garaikidea da: ez da halako interes batzuen koordinazio hutsa; lankidetzaren ildo horizontalak jorratu nahi ditu, eta kolektiboak inguruan duen kokapena sendotu.

Ikus ditzagun, labur-labur, sare baten ezaugarriak:

- > **Dena delako kolektiboaren barruko kohesioa sustatzen du.** Sare bat osatzen badute, kideak indar handiagoz geratuko dira bata besteari lotuta, barruko kohesioa handiagoa izango da, horrek egituratze handiagoa dakar, eta, hala, errazagoa izango da tokian tokiko, eskualdeko eta nazioarteko testuinguru artistikoak garatzea. Badira programak esparru geografiko jakin batean taxutzen dituzten sare ereduak: Xarxaprod; Arts en Residence; Residencias en Red ; Platform NL...
- > **Errazagoa da ahaleginak errentagarriak izatea eta baliabideak zuzen erabiltzea.** Sarean lan eginda, edonolako ekintzak gauzatu daitezke elkarrekin (irudia landu daiteke, komunikazioa, etorkizuneko estrategiak eta abar), ozenago jo ahal izango da aldarria, eta ahaleginak eta baliabideak hobeto aprobetxatuko dira. Errazagoa da baliabideak, azpiegiturak eta informazioa trukatzeko, eta errazagoa, hortaz, sare bereko kideen artean artistak eta ekoizpenak trukatzeko, programazioak koordinatzea eta partekatzea. Sarean errazagoa da denentzako funtsak inguratzea, protokoloak edo praktika onetarako agiriak idaztea, eta abar.
- > **Jakintzak eta esperientziak trukatzeko akuilu.** Sareko kideek harreman handiagoa dutenez, eta sarearen funtzionamenduak berak eraginda, errazagoa da ezaguerak eta esperientziak trukatzeko, eta, horrela, elkar aberastea.
- > **Kolektiboa sendoago kokaturik.** Ezaugarri horiek guztiak direla-eta, sarean eratuta dagoen kolektiboa indar handiagoz egongo da kokaturik, ozenago entzunaraziko du bere ahotsa, proiektio handiagoa izango du kanpoan eta ikuserrazagoa izango da. Hala ere, sistemak askotarikoa izan behar du beti, sare-kideak berak askotarikoak izanik (publikoak, pribatuak, autogestionatuak, maila ezberdin askotako ekimenak).
- > **Errazagoa da geometria aldakorreko lankidetzan aritzea.** Denentzako planteamendu homogeneo eta simetriko bat ez baina, harreman eta akordio malguak eta horizontalak lotu daitezke programen artean, eragile ezberdinen artean (publikoak, pribatuak, anfitorioak eta sortzaileak, nazioartekoak eta tokikoak, beste arlo batzuk), iraupen ezberdinekoen artean eta abar.

Baina kontua ez da lanerako sareak besterik ez sortzea, sarean lan egitea baizik. Horretarako, kide guztiek zer-ekarri berezi bat behar dute eduki (jakintza, eskarmentua, kontaktua), jarrera proaktiboa eta trebeziak eta jakintzak partekatzeko borondatea.

Sareko kideen artean, badira esparru artistikoetakoak eta badira bestelakoak ere, baina denak dira gai ahal den norabide guztietan bilakaera izateko, baita banakako sareak eta erakundeak uztartzeko ere. Eskualde, nazio edo nazioarterako osatu daitezke; kide-oinarri bizi-bizia, irekia eta dinamikoa izango dute; gai-saldo handi batera begira antolatuta, betiere artista-egonaldien programekin lotuta edo praktikaren alderdi zehatz batera zuzenduta.

Garrantzitsua da egonaldien artean sareak osatzea, haien onuren itzala handiagotzen laguntzen dute-eta. Aipa ditzagun batzuk:

- Zubi-lana egitea artelarien eta beste arlo batzuen artean.
- Artistak ikusgarriago egitea.
- Kideen nazioartekotzea eta herrialdeen arteko harremanak hobetzea (soft power eta kultur diplomazia).
- Egonaldia amaituta ere antolatzaile anfitrioiarekin lankidetzan jarraitu ahal izatea.
- Etengabeko lankidetzak izan ahal izatea herriko erakunde artistikoen eta erkidegoaren artean.
- Artisten artean esperientziak partekatzea.

4. Egonaldien onurak.

Europatik² behin eta berriz gauza bera esaten da: kultur aniztasuna eta kultur arteko elkarrizketa inoiz baino beharrezkoagoak diren honetan, zalantza izpirik ez dago zenbateko ekarpena egiten duten artisten mugikortasun-programek eta egoitzek.

Programa horiek dakartzaten onurak lau multzo nagusitan sailka daitezke: artisten garapen profesionala; onura ekonomikoak eta kulturaren garapena (artistarentzat, antolatzaile anfitrioiarentzat eta eskualderako); gauzak antolatzen ikastea eta antolaketa-gaitasuna bai anfitrioiarentzat bai erkidegorako; ospe handiagoa bai hirirako bai eskualderako.

> **Artisten** ikuspegitik, egonaldi-programek maila altuko ikerketa-aukerak ematen dituzte, baliabide ekonomiko (soldata) eta profesionaletarako irits-bidea (instalazioak, teknologia), kontaktuak, sareak, eta publikoekin harremana. Eta trebezia eta gaitasun berriak garatzeko aukera ere ematen dute.

> **Erakunde anfitrioiak** ikusiko dute orain oparagoak direla beste erakunde batzuekin zituzten harremanak (kultur arloan eta bestelakoetan), artista-sareetarako sarbidea izango dute, eta hobeto ezagutu ahal izango dituzte funts-programak eta nazioarteko elkartrukeak. Bestetik, beren programak ere indartu egingo dituzte, baita herriko testuinguruarekiko lotura ere, eta ekintza-esparru zabalagoa lortuko, publiko berriengana iritsiz.

² Policy Handbook on Artists' residencies (2014)



- > Egonaldi-programak **finantzatzen dituzten erakundeek**, berriz, litekeena da beren sorrera-helburuak indartzea, indartzea orobat gizartearen eta sorkuntza-sarearen alde egiten duten lana, kultur-diplomaziaren alde egingo dute eta sona handiagoa izango dute.
- > **Tokian tokiko komunitateek** parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko leku berriak aurkituko dituzte, eta, askotan, sorkuntza-lanera loturik geratuko dira. Hala, gizarte-kohesioa hobetzeko lagungarriak dira egonaldiak, ezagutzaz eta konfiantzaz jositako inguruak dakartzate, jendea sustraitzen eta komunitatearen konpromisoa indartzen laguntzen dute.
- > Eta egonaldia kokatua den **lurraldea** (hiria, eskualdea...) zenbateraino inplikatzeko den, halakoxe onurak izango ditu. Programak finantzatzeaz gainera, programok sustatzeko eta ebaluatzeko lana ere hartzen badute, onura hainbat eratarira iritsiko zaie gobernuei: proiektu konplexuak antolatze gaitasuna irabaziko dute; kulturen arteko elkarriketa indartuko; hiria txukuntzeko aukera; eta beren lurraldearen irudia zabalduko dute: sortzailea, dinamikoa eta kulturari lotua.

Azpirarra dezagun, azkenik, egonaldiak sortzaile gonbidatuei herriaren onerako ordain zehatz batzuk ari direla eskatzen geroz eta maizago. Azaldu ditugun onura horietako asko programaren filosofiak berak dakartza berez, baina, geroz eta sarriago, konpromiso batzuk hartu beharra eskatzen da egonaldia kokatua den herriko bizilagunen onerako. Egonaldiak zehazten dituzte baldintzak eta eskakizunak. Hala, buruz buru eta maila berean jarduten dute, eta programan parte hartzen duten alderdi guztien mesederako izango da.

5. Hautaketa-baldintzak.

Ikus dezagun nola hautatzen diren egonaldi-programetan parte hartuko duten artistak. Jakina, programaren helburuen arabera izango dira hautaketa-irizpideak: ez da gauza bera ateak artista berriei zabaltzea edo nazioartekoak erakarri nahi izatea.

Badira, edonola ere, aholku orokor batzuk. Irizpideetan, garbi geratu behar du zein garrantzitsuak diren eskatzailearen eskarmentua eta haren lanaren kalitatea. Egonaldiak komunitateak ere parte hartzea eskatzen badu, irizpideetan litekeena da zer-nolako prozesuak proposatzen dituzten deskribatzea eskatzea artistei: hobe konpromiso-maila aurretiaz negoziatzen baldin bada artistaren eta erakunde anfitrioiaren artean, baina, prozesua nola garatu, hori egonaldian zehar erabaki daiteke.



Gardentasuna, ekitatea eta kalitatea direla-eta, hautaketak izugarritzko garrantzia du bai erakunde anfitrioiarentzat bai sortzaileentzat. Sarbidearen eta bikaintasunaren arteko oreka bilatu behar da. Hala, badira gutxi gorabeherako gai batzuk hautaketa-prozesuan ebaluatu beharko liratekeenak: prozesuaren zabaltasuna eta gardentasuna (prozesu irekia al da? Gardena al da?); erabakiak hartzea (nork hartzen ditu erabakiak? Epaimahai batek/Batzorde iraunkor batek? Erakundaren barrukoa ala kanpokoak? Kideak berritzen al dira aldian-aldian?); eta, azkenik, emaitza (azken bost urtean nor aukeratu dute? Nork aukeratu ditu?).

Erabiltzen ari diren irizpideen eta hautaketa-metodoen ikuspegi orokor bat ematearren, IFACCA³ 2012an egin zuen inkesta baten emaitzak hartu ditugu erreferentzia modura. Mundu guztiko arte-kontseiluei eta kultura-ministerioei zuzendua zen.

Garbi utzi beharra dago ez dagoela Europan soilik egina, eta, hortaz, badirela gai batzuk, nazioarteko dimentsioa adibidez, Europan darabilgun perspektibatik dezente aldentzen direnak, nazioarteko gure mugikortasun- eta elkartruke-programak Europan baititugu sustatzen. Nazioarteko egonaldiak kudeatzeko gorabehera operatiboak errazago bideratzen dira gaur egun Schengen sisteman parte hartzen duten 26 herrialdeetan, badirelako horrelako programetarako berariazko funts batzuk, eta, gainera, Europar Batasunaren barruan pertsonak aske zirkulatzeko eta bizitzeko eskubidea dutelako (EE/2004/38 Zuzentaraua).

Lehenik eta behin, IFACCA inkestari erantzun zioten erakunde gehienek (% 80k) esan zuten egonaldi-programak herrialdeko artistentzat edo herrialdean bizi diren artistentzat besterik ez direla.

Egonaldi gehienek publikoki iragartzen dute hautaketa-prozesua (% 67k). Hauek dira **artistak** hautatzeko gehien erabiltzen diren hiru irizpideak:

- Eskatzaileak zer aukera dituen garapen profesionalerako (% 87).
- Eskatzailearen merezimendu artistikoa (% 80).
- Eskatzaileak proposatzen duen proiektua (% 67).

Baina inkesta bete zutenek beste hautaketa-irizpide batzuk ere aipatu zituzten:

- Komisario independente batek hautatu izana.
- Proiektu artistikoaren irismen soziokulturala.
- “Artista komunitateak” zehazten dituen hautaketa-irizpideak.



Eta egonaldi eskatzaileak berak proposatzen badu, irizpide hauek izaten ditu kontuan:

- Egonaldia eskaintzen duen erakundeak edo taldeak maila profesional handia izatea.
- Egoiliarak behar dituen instalazioak edo laguntasuna emateko gaitasuna.

Hautaketa-prozesua nolakoa izaten den aztertuta, honakoak dira emaitzak:

- Eskabide-orria (% 73).
- Portfolioa eta curriculum vitae (% 67).
- Erreferentziak (% 27).
- Egonaldiko zuzendaritzaren iruzkinak edo iradokizunak (% 13).

Inkesta bete zuten askok (% 60) esan zuten egonaldi-programa bakoitzaren arabera dela hautaketa-prozesua. Eskakizun hauek ere aipatu zituzten:

- Lan egitasmoa.
- Komisarioaren irizpideak.
- Lan adibide bat.

Erdiak inguru (% 44k) egonaldia amaitu eta gerorako ere jartzen dizkiete **baldintza batzuk** artistei (txostenak, emanaldiak eta abarrak). Gehien-gehienetan nahitaezkoak dira, eta txosten bat ere eskatzen dute (idatzizkoa edo ahozkoa), eta, gutxiagotan bada ere, baita erakusketa bat ere.

Galdesorta bete duten erakundeen erdiek elkartrukeetan ere parte hartzen dute, alegia, beren herrialdeko artistak beste herrialde bateko egonaldi batera joan ohi dira. Galdesorta bete dutenen laurdenak (% 25) txostenak/protokoloak/jarraibideak ere ematen dituzte, artista beste kultura batean bizitzeko prestatzearren.

6. Ikusgarritasuna eta komunikazioa.

Azken kapitulu honetan, saiatuko gara erakusten ikusgarritasuna eta komunikazioa bezalako alderdiek zer-nolako garrantzia duten egonaldi-programetan, kultur proiektu ororen giltza baitira. Ekipamendu handi eta erakunde sendoen itzalpean badaude, programak haien komunikazio-ahalmenaz baliatu ahal izango dira. Baina, txostenean zehaztu dugunez, hainbat eta hainbat motatakoak dira egonaldiak, eta badira egonaldi nanoak ere. Eta, gainera, bada ikusgaitzago egin ditzakeen zerarik ere, ezaugarrietako bat denboraren laburra baitute, bai baitira egun bakarreko egonaldiak ere.

Sustapen-lanean oso lagungarria izan daiteke dena delako egonaldi-programa zerk bereizten duen identifikatzea. Hainbat izan daitezke bereizgarriok: instalazioak, programa, hiria edo inguru, bertan izaten diren artisten ospea, komunitatean zenbateraino diren errotuak, eta abar.

Kontuan hartu beharreko beste kontu bat da erakunde anfitrioiak beretzat gorde behar dutela artisten parte-hartzearen berri zabaltzeko eskubidea egonaldia baino lehenago, dirauen bitartean eta amaitu ondoren; eta artistek, berriz, zer programatan hartu duten parte aipatu behar izango dutela.

Komunikazioa erraztearren, badira sare eta plataforma batzuk mundu osoko egonaldiei buruzko datu-baseak dituztenak. Hortaz, herrian eta nazioartean begiratu behar ea zer saretarra sar gaitzkeen egonaldia sustatzeko; behar-beharrezkoa da programaren berri komunikatzeko, batez ere egonaldia ikusgarritasunaren radarraren irismenean ez badago.

Hona hemen zabalenetako eta ezagunenetako batzuk:

- **Res Artis**, artisten egonaldi sare europarra. 70 herrialde baino gehiagotako programa-zerrenda zehatza dakar.⁴ > <http://www.resartis.org/en/>
- **TransArtists**, arte-egonaldien nazioarteko beste sare bat. Ikerketarako eta sustapenerako baliabide ere bada.⁵ > <http://www.transartists.org/>

Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu txostenaren praktika onen eranskinean eta Policy Handbook-en (kapitulu bat sareei buruzkoa du).

⁴ EAEn programa bakarra dago; Zawp.

⁵ Sare horretan ditugu Azala, Tabakalera eta Zawp.

7. Ondorio gisa.

Ondorio modura, hona hemen egonaldien ezaugarri batzuk:

- > **Ikuskera-aldaketa.** Egonaldi-programak partaide diren guztien ikuskera aldatzea dakar berarekin. Sortzaileena, barruraino murgildu beharra daukatelako, zorrotz eta luze antzean, betikoa ez duten inguru batean. Egonaldia mugari moduko bat da; handik igarota, aldatu da sorkuntza garaikidearen ikuskera, aldatu da lan egiteko modua, eta aldatu da gainerako partaideekiko harremana. Antolakunde anfitrioiarena, berriz, beste harreman-modu batzuetarako prest egon behar dutelako, prozesu konplexuetan. Eta, komunitatearena, subjektu aktibo modura dihardutelako prozesu kolektibo baten. Hortaz, egonaldiak aberaste-prozesuak dira norbanakoarentzat eta kolektibitatearako.
- > **Norbere txokotik kanpo.** Betiko txokotik kanpora ateratzen dituzte partaideak egonaldietan. Testuingurutik at, lekuz kanpo. Hitzez hitz gainera, beste lan-leku batera joan beharra dakarelako; baina baita -eta hau garrantzitsuagoa da- beste posizio batean jartzen dituztelako ere, betikoa ez beste batean alegia, eta, jakina, harreman berriak egin behar, eraiki egin behar, hitz egin eta negoziatu, rol berriak jokatu, ikertu eta ulertu egin behar. Kokaleku berri batean egon behar.
- > **Ziurtasunik ez.** Egonaldiak proiektu konplexuak dira, irekiak, eraikitze-bidean direnak. Edonolakoak direlarik ere, ezin ezer aurreikusi. Azkenean ekoizpenen bat entregatzeko konpromisoa izan arren ere -eta ez du zertan halakorik izan-, inoiz ez da emaitza aurretiaz definitzen. Horixe da sortze-prozesu garaikide ororen funtsa eta muina. Ez ahaztu, gainera, alderdi anitzek dituztela ateak zabalik, era askotakoak direla eragileak, eta, jakina, ezin ez prozesu ez emaitza ziur-ziurrik eskatu. Horrexegatik, etengabe aritu beharra dago dokumentazio bila eta bitartekari-lanetan.
- > **Alderdi aniztasuna.** Egonaldietan osatzen diren konexioak sare-lanean dira oinarrituak. Elkarrekikotasunean oinarrituta ikasten da, “kide” izanik: elkarkide, lankide, koordinazio-kide, ekoizpen-kide. Baina malgutasuna begi aurretik aldentu gabe, derrigor simetrikoa izan beharrik gabe.
- > **Eraldaketa.** Edozein kultur programaren azken jomuga errealitatea eraldatzea da. Ustea duelako -oinarrizko printzipioa- kultura ona dela norbanakoaren eta kolektibitatearen garapenerako. Egonaldi-programak tresna bat dira, elkartruke eta lankidetzarako; bertakoaren eta globalaren artean zubi-lana egiteko; zubi izateko orobat beti beren kasa dabilzan diziplina eta esparruen artean. Testuinguru-sortzaile dira. Eta, hartara, errealitatea eraldatzeko zelulak dira, ikerketan eta ekintza sortzailean oinarrituta.

II Eranskina: Erreferentziazko egonaldiak eta jardunbide egokien deskribapena.

Erreferentziazko egonaldiak hautatzea ez da lan erraza. Batetik, munduan hainbat eta hainbat programa daudelako, eta, bestetik, batzuek eta besteek oso baldintza desberdinak eskaintzen dituztenez, erreferentziazko adibideak hautatzea benetan arriskutsua delako. Programa onena zein den hautatzeko norentzako programa den (gorantz doan artista edo jada finkatuta dagoena, baliabide propiorik duen edo ez, jatorrizko eta helmugako herrialdea, etab.) edo zertarako programa den (espezializatua edo ez, eskuragarri duen denbora, aurrera eraman nahi duen proiektua, etab.) hartu behar da aintzat.

Aldez aurretik adierazi dugunez, sareek informazio ugari ematen dute munduko programa mota guztien inguruan. Hautaketa egiteko, ordea, programa batzuen eta besteen bila dabiltzanen interes eta helburuak jakin behar ditugu, eta, bereziki, egonaldi interesgarrienei buruzko jakintza kualifikatua izan.

Horregatik, hautaketa egiteko, Europako Batzordeak argitaratutako dokumentu horretara jo dugu, egonaldiei dagokienez Europan erreferentziazkoa delako. 2014. urtekoa bada ere, aipatzen dituen erreferentziak interesgarriak dira oraindik ere. artnet news-en argitaratu berri diren (2017) bi artikulu ere kontsultatu ditugu, non Europako eta Estatu Batuetako egonaldirik onenak hautatzen diren.

Dokumentu-iturriak

> **Policy Handbook on artists' residencies** http://ec.europa.eu/assets/eac/culture/policy/cultural-creative-industries/documents/artists-residencies_en.pdf

> <https://news.artnet.com/art-world/best-artist-residencies-europe-1060478>

> <https://news.artnet.com/art-world/7-best-artist-residencies-1033418>

Erreferentziazko egonaldiak

a) Erakunde anfitrioiaren arabera:

Izartxo batez ospetsuenak eta sarbide zailena dutenak adierazi dira, eta bi izartxo, berriz, gorantz doazen artistentzat onenak direnak.

Egonaldiak *stricto sensu*

Akademie Schloss Solitude, Stuttgart, Alemania *

Rijksakademie, Amsterdam, Holanda*

Villa Lena Foundation, Toscana, Italia*

Camargo Foundation, Cassis, Francia*

The Rockefeller Foundation Bellagio Center, Como, Italia*

Gasworks, London, Ingalaterra**

Cripta747, Turin, Italia**

Bauhaus Residence, Dessau, Alemania*

Arte-erakundeak eta festibalak

DAAD Artists-in-Berlin Program, Berlin, Alemania*

Pavillon Neuflyze OBC, Paris, Francia*

Bethanien, Berlin, Alemania**

Rupert, Vilnius, Lituania**

Triangle Marseille, Marseille, Francia**

Wiels Residency, Brussels, Belgica**

Van Eyck Academie, Maastricht, Holanda**

Bemis Center for Contemporary Arts, Omaha, Nebraska USA**

Toneelhuis, Antwerp, Belgica (artes escénicas)*

Artistek zuzendutako zentroak.

De Ateliers, Amsterdam, Holanda**

Skowhegan School of Painting & Sculpture, Maine, USA**

b) Helburuaren arabera

Aurreko atalean aipatutako egonaldi gehienetan produkzio- eta ikerketa-egonaldiak bildu dira. Haietako asko diziplina ugarrizkoak ere ireki dira. Gaien eta nazioartekotzearen eremuan nabarmendu diren hiru adibide baino ez ditugu bildu atal honetan.

Gaiak

Künstlerhaus Schloss Balmoral, Bad Ems, Alemania*
Cape Farewell, Erresuma Batua

Nazioartekotzea/trukea.

Iaspis, Stockholm, Suedia*
International Studio and Curatorial Program, Brooklyn, New York, AEB

c) Programa berritzaileak

Caribic Walking Residency, zenbait kokaleku. Egonaldi ibiltaria, non artista egoiliar batek beste bat hartzen duen eta elkarrekin ibiltzen diren, bi egunez, hiri batetik bestera oro har, ideiak elkartrukatzuz.

SKLAD Residency, Sokhumi, Abkhazia. Egoiliarrek Abkhazia eskualdeko eszena artistikoa babes dezakete. Georgiako ipar-ekialdean kokatuta dago Abkhazia, eta estatu nahiko ezezaguna da, partzialki bakarrik aitortua. Urtebeteko iraupena duen gaiaren inguruan diseinatu da programa, eta gehienez sei egoiliar bil ditzake, gutxienez bi astean, Sokhumi kostaldeko hirian, Itsaso Beltzean.

COLLIDE Artists Residency, Geneva, Suitza. Egonaldi paregabe honek arteei buruzko jakintza aditua garatzea bilatzen du, zientziarekiko konexio baten bitartez. Bi hilabeteko egonaldia eskaintzen du, guztiz finantzatua, CERN Ikerketa Nuklearrerako Europako Erakundearen, Genevan, eta hilabeteko beste egonaldi bat FACT Arte eta Teknologia Sortzailerako Fundazioan, Liverpooletan.

Sareak eta mapak.

Erreferentzia.

Res Artis (Worldwide network of artist residencies).

Helburuak.

Ekintza batzuen bidez, egonaldiak sortzeko bidea erraztea.

Azalpena.

- > Zentroak, antolakundeak eta norbanakoak daude sarean.
- > Kideen eskura argitalpen batzuk jarritz, baliabideak, jakintzak eta aholkuak eskaintzen dizkie.
- > Profil (eta mapa elkarreragile) baten bidez nor bere burua ikusgarri egiteko bidea ematen du, elkar ezagutzeko eta harremanetan jartzeko.
- > 70 herrialde baino gehiagotan dago.
- > Sareak egiten duen guztiaren zati bat dira egonaldiak, beste hainbat proiektu eta topaketarekin batera.
- > Ohiko ingurutik kanpora joaten dira, egunero presaka ibili beharretik urrun.
- > Jatorrikoaz bestelako inguru kultural baten murgiltzea nahi dute.
- > Ez dago egonaldi-eredu bakar bat ez iraupenean, ez emaitzetan, ez inguruetan, finantzaketan... Edozein motatakoak izan daitezke.
- > Erraza da, eta nabarmentzekoa, egonaldiaren ondoren harremanek beste era batera jarraitzea, luzaroago irautea.

Eragileak.

Res Artis (irabazi asmorik gabeko GKE, Herbeheretan erregistraturako fundazioa).

Informazio gehiago.

<http://www.resartis.org>



Erreferentzia.

TransArtists

Helburuak.

Mundu osoko egonaldiak artisten eskura jartzea, hurbil; weba erabiliz, workshopak, ikerketak...

Azalpena.

> Egonaldien erabilera, haien balioa eta haiek eskaintzen dituzten aukerak jorratzen dituzte.

> Egonaldiak eta zabalik daudeneko epeak aurkitzeko bilatzaile bat darama, eta baliabideen zerrenda: besteak beste irakurgaiak eta kontaktuak.

> Proiektuaren parte dira ez artistak soilik, baita erakundeak ere, eta haien zatirekin bada zerbitzurik (datu-baserako sarbidea, aholkularitza eta prestakuntza-topaketak).

Eragileak.

DutchCulture (Centre for international cooperation), Amsterdam - TransArtists.

Informazio gehiago.

<http://www.transartists.org>

<http://dutchculture.nl/nl>

**Erreferentzia.****On the move (OTM).****Helburuak.**

Nazioarteko mugikortasuna erraztea, Europa konektatzen laguntzeko, gainerako guztiarekin batera.

Azalpena.

- > Kultur mugikortasunari buruzko eta hartarako sare bat da. 20 herrialdeko 35 erakunde baino gehiagori buruzko informazioa du.
- > Material gardenak egiten ditu, dohainekoak eta edonork eskuratzeko modukoak.
- > Prestakuntza-ekintzak, sare-kideen gaitasuna hobetzeko.
- > Mugitzeko aukerak erakusteko gidak egiten ditu, munduko hainbat eskualderako.
- > Prestakuntza-baliabideak eskaintzen ditu (gidak, tresnak, politikak...).

Eragileak.

Frantziako Kultura eta Komunikazio Ministerioa du laguntzaile.

Beste erakunde batzuek EBk finantzaturik aurrera daramatzaten beste proiektu zenbaiten artean dago, eta beste elkarte batzuekiko aliantzak ditu lagun.

Informazio gehiago.

<http://on-the-move.org/>

**Erreferentzia.****Curators' network****Helburuak.**

Profesionalen lankidetzaren eta elkartrukearen erraztea artetik, tokian tokiko klusterrak eta nazioarteko kultur sareak indartuz.

Azalpena.

- > Datu-base baten bilduta dituzten jarduerak (egonaldiak, topaketak eta beste), proiektuak, artistak eta beste kultur eragile batzuk.
- > Tokian tokiko esperientziak nazioartean ikusaraztea du helburu.
- > Artista profesionalak konektatzen saiatzen da, baina "periferikoak-edo" diren inguruetan aritzen diren artistak, arte garaikideko zentro handietatik urrun daudenak.
- > Lan artistikoa eta ikerketa-lana bateratzen ditu. Begirale-lanak ere zeresan handia du.
- > Sortze-lan berriei laguntzen die.
- > Artista, begirale, idazle eta beste kultur eragile batzuen mugikortasuna errazten du.
- > Artista, erakunde eta beste profesional batzuen arteko lankidetzaren eta sareak sortzen laguntzen du.

Eragileak.**Informazio gehiago.**

<http://www.curators-network.eu/>

Bilatzailea.

Erreferentzia.

Localizart

Helburuak.

Jarduera sortzailea sustatzea, prestakuntza eta zabalkundea, bai nazio barruan bai nazioartean.

Azalpena.

> Egonaldiak eta Ekoizpen Artistikorako Espazioak aurkitzeko gailua da ekimenik handiena. Lehendik genuen Ikusizko Arteetarako Baliabide Gida osatzera eta zabaltzera dator. Mapa elkarrenergilea da. Sortzeko espazioak non diren erakutsi eta haiei buruzko informazioa emango digu.

> Sortzaileei mugitzeko bidea errazteko, kanpoko programak non diren ere erakutsiko digu.

> Arte garaikidea nazio barruan nondik nora dabilen arakutzen du, sakon antzean, azpiegituren mapa bat egiteko. Mapa horretan, arte-zentroak, coworking-zentroak, sareak eta bestelakoak aurkituko ditugu.

Eragileak.

Espainiako Gobernuak. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa; Arte Ederrak Sustatzeko Zuzendariorde Nagusia.

Informazio gehiago.

<http://www.localizart.es>

Proiektu bereziak.

Erreferentzia.

EN RESIDÈNCIA (Creadors als instituts de Barcelona)

Helburuak.

Ikasleak artearekin zuzeneko harremana izan dezaten saiatzea.

Azalpena.

- > Artistak eskolara joango dira eta obra bat garatuko dute, bigarren hezkuntzako ikasle-talde batekin.
- > Ikasleek ere parte hartzen dute obra sortzen eta gauzatzen.
- > Urtebeteko iraupena du.
- > Blog bat ere sortzen dute, gogoetarako, elkarrizketarako, azterketarako...
- > Aurretiazko fase batean, bitartekari-talde batek ikastetxeak eta sortzaileak aukeratuko ditu (ikastetxeek berek eman behar dute izena). Bada garapen-fase bat, hirutan banatua: "lurrartzea;" jarraitu beharreko prozesuak zehaztea; eta, azkenik, gauzatzea, aurkeztea eta ebaluatzea. Eta azken fasea gero: jendaurrean aurkeztea eta erakustea.
- > Ibilbide esanguratsua duten sortzaileak nahi ditu bitartekari-taldeak. Ikasleekin lan egiten ere jakin behar dute, baina ez dute zertan arte pedagogo izan, ez eta irakasle ere.

Eragileak.

Institut de Cultura de Barcelona (ICUB), Consorci d'Educació de Barcelona (CEB). Associació A Bao A Qu-rekin lankidetzan daramate aurrera ideia.

Informazio gehiago.

<http://www.enresidencia.org/>

**Erreferentzia.**

Delfina Foundation

Helburuak.

Elkartrukea eta esperimentazioa sustatzea artista, begirale eta idazleen artean, nazioarteko mugikortasuna eta lankidetzak erraztuz, egonaldiak, lankidetzak eta programazio artistikoak erabiliz.

Azalpena.

- > Espazio birgaitu bat da, 8 egoiliarrentzako lekua dauka, erosotasun guztiak, eta baita lanerako bestetarako ez diren beste toki batzuk ere.
- > Londres erdialdean dago, izen handiko arte-leku askotatik hurbil.
- > Beste elkarte batzuekin batera lan egin dute, egonaldi-aukerak sortzeko munduaren luze-zabalean.
- > Egonaldietan, esparru ezberdinetako profesionalak batzen dituzte, elkartrukea erraztearren.
- > Egonaldiek 3 hilabeteko iraupena dute.
- > Egoitzan bertan bada erakusketa-gela handi bat askotariko jarduerak egiteko erabiltzen dena.

Eragileak.

Delfina Foundation

Informazio gehiago.<http://delfinafoundation.com/>

**Erreferentzia.****Conexiones improbables****Helburuak.**

Enpresek edo antolakundeek proposatzen dituzten erronkei erantzuna ematea, berrikuntza irekia eta elkar laguntzailea erabiliz metodologia modura.

Azalpena.

- > C2+i aholkularitzak garatu du plataforma.
- > Berrikuntzarako lan-metodologia bat da "Conexiones improbables".
- > Hainbat gauza egiten da: elkar-ikerketak, laborategiak eta workshopak, training-saioak eta Spin up espazioak.
- > Taldeetan -taldeak osatzen baitira- artegintzatik eta kulturatik datorren jendea eta enpresa edo antolakunde jendea izango da batera.
- > Proiektu bakoitzean taldeak erronka bat izago du. Esparruak eta profesionalak gurutzatzeak dakartza berrikuntza eta aldaketa-proposamenak.
- > Edonolako eragileak izan daitezke erabiltzaile.

Eragileak.

Sustatzailea: c2+i

Informazio gehiago.

<http://conexionesimprobables.es>



Txostena.

Egonaldiak: eredu azterketa. 2017

2017ko uztaila.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA